

Skate parkea Martindozenean

Eta desplazamendu-kirolen zaleentzako albiste onak ez dira hor amaitzen, laster irekiko da skate park bateko zenbait elementu dituen modulu bat, Oñako baroiaren parkean, gaztelekuaren ondoan.

Aipatu behar da ez dela Santiago zubiko instalazioa bezalakoa, baina bai kirola egiteko tamaina handiko modulu bat. Parkea erakargarriago egingo du, dudarik gabe, jende guztiarentzat eta, bereziki, gaztelekuan ibiltzen diren gazteentzat eta desplazamendu-kiroletako zaleentzat.

Modulua 26m luze eta 9m zabal da, eta horrelako instalazioetako ohiko elementuak ditu: arrapalak, barandak, horma inklinatuak... bertan patinatzeko. Inbertsioak 60.000 euroko aurrekontua izan du, eta pandemiaren aurretik José Antonio Santano Irungo alkateak gaztelekuko erabiltzaileekin egin zuen bilera batean du jatorria.

Instalazio berri hau Santiago zubiko skate parkearen osagarri izango da. Azken hori gure inguruko handienetako bat da, eta arrakasta handia izan du ireki zenetik. Oñako baroiaren parkeko instalazioa xumeagoa da eta, hortaz, ezin hobea da, esaterako, skatearen munduan hasten ari direnentzat.

Skate park en Martindozenea

Las buenas noticias para personas aficionadas las modalidades ligadas a los deportes de desplazamiento no se acaban aquí, porque en los próximos días se abrirá en el parque Barón de Oña, junto al Gazteleku, un módulo con varios elementos de skate park. Cabe señalar que no es una instalación como la del puente Santiago, pero sí es un módulo con dimensiones considerables para la práctica deportiva. Será un atractivo para el parque y sin duda para usuarios/as del Gazteleku y del resto de aficionados/as que hay en la ciudad a los deportes de desplazamientos.

De 26 metros de largo y 9 de ancho, la superficie se compone de un módulo que cuenta con elementos típicos como rampas, barandillas y paredes inclinadas por los que patinar. El presupuesto destinado a esta inversión es de 60.000 euros y nace de uno de los encuentros que antes de la pandemia mantuvo el alcalde de Irun José Antonio Santano con usuarios/as del Gazteleku.

Esta nueva instalación permite complementar el skate park del puente Santiago, uno de los más destacados de todo nuestro entorno y que desde su apertura ha tenido mucho éxito. Este de Barón de Oña es algo más sencillo, por lo que podría ser ideal, por ejemplo, para iniciarse en el mundo del skate.